



HAUEI BURUZKO AKATSAK ZUZENTZEA ETA JARRAIBIDE OSAGARRIAK EMATEA

ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIAREN JARRAIBIDEAK, IKASTURTEA ANTOLATZEKO, HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTA (HLE), FISIOTERAPIAKO ESPEZIALISTA, TERAPIA OKUPAZIONALEKO ESPEZIALISTA, ZEINU-HIZKUNTZAKO INTERPRETE (ZHI) ETA LOGOPEDA LAN-KONTRATUDUN LANGILEEI DAGOKIENEZ, ETA ENTZUMEN ETA HIZKUNTZAKO IRAKASLEEI (EHI) DAGOKIENEZ

2023-2024 IKASTURTEA

AKATSAK ZUZENTZEA

2023-24 ikasturterako jarraibideetan, (2023ko ekainaren 20an argitaratuak, gaztelaniaz), terapeuta okupazionalen eta fisioterapeuten lurraldearteko koordinazio-bileren data okerrak agertu ziren. Hauek dira data zuzenak:

Terapeuta okupazionalak	Fisioterapeutak
Urriaren 19a	Urriaren 20a
Abenduaren 14a	Urtarrilaren 12a
Martxoaren 7a	Apirilaren 19a
Maiatzaren 9a	Ekainaren 7a

HEZKUNTZA-LAGUNTZAKO ESPEZIALISTEK HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK (HPB) DITUZTEN IKASLEEI JANTOKIKO ORDUTEGIAN ARRETA EMATEKO JARRAIBIDE OSAGARRIA

Hezkuntza Saileko irakasleen eta hezkuntza-langileen hitzarmen kolektiboa negoziatzeko mahaiaren Erabakiak, 2018ko apirilaren 13koak, hau dio 12. apartatuan:

“Arrazoi horregatik, ikasle guztiak –premia bereziak izan edo ez– hartuko dira kontuan jantokiko begiraleen ratioak kalkulatu ahal izateko.

Eskola Inklusiboaren ikuspegitik, eta jantokia hezkuntza-espazio bat izanik, hala jantokian nola jolastokiko zainketa-zereginetan, espezialistaren esku-hartzea autonomia pertsonaleko edo sozialeko programa bati loturik egongo da beti.

Jantoki-zerbitzuan zuzeneko arreta ematen duten langileek ordubete izango dute bazkaltzeko, eta ordu hori lanaldizat hartuko da”.



HPBak dituzten ikasleen **autonomia pertsonal edo sozialeko programari** dagokionez, 2023-2024 ikasturtetik aurrera, HLPBen aholkularitzak kodetuko du ea ikasleak HLEen arreta-premia dakarren autonomia sozialeko edo pertsonaleko programa duen bazkalorduan (300.6E1), eguerdiko jolastokian dagoen denboran (300.6E2), bi egoeretan (300.6E1 eta 300.6E2) edo bietako batean ere ez (horrelako koderik gabe).

Ikastetxeko zuzendaritzak ikasleen arreta-premiak asetzeko gisan prestatu beharko ditu HLE langileen ordutegia eta bazkaltzeko txandak; arreta-premia horiek aurreko kodeekin zehaztu ditu HLPB aholkularitzak.

HLE bakarra badago eta ezin bada txandarik egin, ikastetxeko zuzendaritzak jantokiko arduradunaren bidez ziurtatu beharko du HLEa behar duten ikasleei arreta egokia ematen zaiela HLEak bazkaltzeko dagokion ordua erabiltzen duen bitartean.

Jantokiko begiraleek lankidetzan jardungo dute, kualifikaziorik gabe (beren hitzarmenean adierazten den bezala), jantokian eta atsedenaldietan ikasleei atentzia, zaintza eta arreta emateko zereginak beteko dituzte, bazkal aurretik zein ondoren, gainerako ikasleekin egiten duten bezala, premia bereziak izan zein ez.

Vitoria-Gasteizen, sinaduraren egunean

Lucía Torrealday Berrueco
ANIZTASUNERAKO ETA HEZKUNTZA INKLUSIORAKO ZUZENDARIA